

# GABON, HONTZA!

Testua eta irudiak: PAT HUTCHINS

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 19,5 x 24 cm. 36 or. 14 €.

LIBURU NABARMENDUA (AMERIKAKO BIBLIOTEKARIEN ELKARTEA), 1972

**Gabon, Hontza!** (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-772-8. Kalandraka-Pamiela.

**¡Buenas noches, Búho!** (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-92608-75-1. Libros para soñar.

**Boas noites, Bufo!** (gallegoz)

ISBN 978-84-8464-825-3. Tras os montes.

**Boa noite, Mocho!** (portugesez)

ISBN 978-989-749-004-0. Livros para sonhar.

*Hontzak lo egin nahi zuen.*

*Erleak burrubaka hasi ziren,*

**buzz-buzz,**

*eta Hontzak lo egin nahi zuen.*

*Katagorria intxaurrak kraskatzen zebilen,*

**kraska-kraska,**

*eta Hontzak lo egin nahi zuen ...*

“Gabon, Hontza!” aurre-irakurle eta lehen irakurleentzako album bat da, bere egitura errepikakor eta metagarriagatik nabarmentzen dena. Istorioan zehar, animalia asko hurbiltzen zaizkio protagonistari, eta loa galarazten diote beren hotsekin. Onomatopeiek askotariko soinueta ohitzen laguntzen diete aurre-irakurleei, ipuineko parte hartzaile bihurtzen direlarik. Fauna eta ingurumena ezagutzera emateaz gain, jolas mnemoteknikorako bidea ere eskaintzen du; horregatik guztiagatik oso liburu aproposa da eskolan irakurketa estrategiak garatzeko. Eta hori guztia gutxi balitz, umorez betetako ustekabeko amaiera dakar.

Istorioaren xalotasunarekin bat eginik, Pat Hutchins-ek proposamen grafiko sinple eta koloretsua landu du, ekintza garatzen den agertoki bakar batean. Orrialdeetan aurrera joan ahala, zuhaitzeko adarretara bizilagun berriak iristen dira, zein bere berezko kantu eta hotsekin.



- Gaiak: ipuin metagarri eta errepikakorra, ingurumenaren ezagutza.
- Gomendatutako adina: aurre-irakurleak eta lehen irakurleak.
- Alderdi azpimarragarriak: Amerikako Bibliotekariak  
Elkarteak nabarmendutako liburua (1972); “Loreren Ibilaldia” (Kalandraka-Pamiela) obraren egile berarena; animaliak, basoa, zenbakiak, hotsak eta onomatopeiak, jolas mnemoteknikoa.

## Pat Hutchins

(Ingalaterra, 1942)

Zazpi neba-arrebetan seigarrena izaki, Pat Hutchins landaz eta naturaz inguratuta hazi zen, haren obran garbi ikus daitekeen eragina. Oso gaztea zenetik artista izan nahi zuela jakin zuen, eta zaletasun hori neskaren marrazki bakoitza txokolate batekin saritzen zuen zahar-bikote batekin areagotu zuen. Herriko arte-eskola batean ikasi zuen hiru urtez, eta handik Leeds-eko Arte Akademiara joan zen bere prestakuntza zabaltzera, ilustraziogintzako berezitasunean, hain zuzen ere. Hasiera batean, haren obra Londreseko arte-zirkuitu komertzialera mugatu zen; ezkondu eta gero, ordea, New Yorken bizi izan zen bolada batez, eta han bere obra zenbait argitaratzailei erakutsi zien, arrakasta handiz. “Loreren Ibilaldia” izan zen haren lehen haur-albuma, eta Amerikako Bibliotekariak Elkarteak (ALA) 1968an nabarmendu zuen. Geroztik, zenbait eleberririk idatzi eta album ilustratu asko sortu zituen. Kate Greenaway Domina entzutetsua jaso zuen 1974an. Gaur egun Londresen bizi da.



www. **kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com  
etxea  
soltxate@pamiela.com